



LESAKAKO UDALA (NAFARROA)
AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)

LESAKA

UDALEKO EGOITZA ELEKTRONIKOA SORTZEA.

Urriaren 1eko 39/2015 Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearekin eta urriaren 1eko 40/2015 Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko Legearekin bat, eta herritarrei gure entitatearekin harremanetan jartzeko komunikazio-sistema telematiko bat emateko xedez,

542/2020 ebazpenaren bidez, EBATZI DUT:

1. 2010eko abenduaren 7an Alkateak emandako 464/2010 ebazpena indarrrik gabe uztea.

2. Lesakako Udalaren egoitza elektronikoa sortzea <https://sedeelectronica.lesaka.net> helbide elektronikoan: Internet-domeinua Lesakako Udalaren jabetzakoa da, eta Lesakako Udala da egoitzaren titularra.

3. Egoitza elektronikoa ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik sartuko da indarrean.

4. Ebazpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dadila agintzea.

5. Udal-arlo guztiei jakinaraztea, baita argitaratzea Lesakako Udalaren Web Atarian eta Egoitza Elektronikoan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den egun beretik.

6. Egoitza Elektronikoaren zuzendaritza eta koordinazioa Lesakako Udalaren idazkaritza nagusiari ematea.

Lesakan, 2020ko abenduaren 15ean.

Alkatea,



Ladis Satrustegui Alzugaray.